

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bertizen “hide” bat inauguratuko da Basoen Mundu Eguna dela-eta

Ingurumenak hitzaldi eta jarduera irekiak eskainiko ditu martxoaren 23an eta 24an

Asteazkena, 2018.eko martxoak 21

Datorren martxoaren 24an, larunbatean, Bertizko Jaurerriko Parke Naturalak Basoen Mundu Eguna dela-eta egingo dituen [jardunaldien](#) esparruan, “hide” bat inauguratuko da Markategiko parajeetan. Parke Naturelean azpiegitura hori —fauna behatzeko gordelekua— jartzearen helburua da ingurumen-hezkuntzako, sentsibilizazioko eta dibulgazioko jardueren eskaintza hobetzea, Erabilerari eta Kudeaketari buruzko Plan Zuzentzailearen arabera. Hide-ari esker, ikasleek eta parkea bisitatzen dutenek aukera izango dute Eskualdeko Atlantikoko basoko hegazi nagusiak ikasteko eta behatzeko.

Hide-aren inaugurazioarekin amaiera emango zaio Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuak Basoen Mundu Eguna dela-eta Bertizen antolatutako hitzaldi-zikloari. NBEko Batzar Orokorrak urtero martxoaren 21ean egitea erabaki zuen Basoen Mundu Eguna, eta egun horren helburua da gizartea kontzientziatzea basoek pertsonen bizimoduan duten garrantziaz eta ingurumenaren iraunkortasunean, elikagaien segurtasunean eta pobreziaren eraztean betetzen duten paper nagusiaz. Basoko edozein administrazio edo kudeatzailearentzat, ekosistema basotsuen kudeaketa iraunkorra giltzarria da oraingo eta etorkizuneko generazioek aurrean dituzten erronkei aurre egiteko.

Hitzaldiak martxoaren 23ko eta 24ko asteburuan izango dira Bertizko Jaurerrian. Bertizko Parke Naturalak Bidasoaren arroko basorik berezietarikoa eta ederrenetarikoa hartzen du, hedadurarengatik zein balio ekologikoarengatik. Batik bat pagadiak eta hariztiak daude, eta duela 110 urte Pedro Cigak eta Dorotea Fernandezek hasitako baso-kudeaketa kontserbatzera bideratu da erabat. Basoak denboraldi honetan izandako bilakaera naturalaren ondorioz, pagadiak ugaritu dira Atlantikoko baso hauetako berezko bestelako formazioen kalterako; hala nola, gaztainadiak eta hariztiak.

Hitzaldiak, tailerrak, performance eta erakusketa

Antolatutako hitzaldien bitartez bertaratuek hobeto ezagutu ahal izango dute Bertizko basoa. Martxoaren 24an, larunbatean, hiru hitzaldi eskainiko dira:

9:00: “Zuhaitz zaharrak eta horien garrantzia basoetan”, Oscar Schwendtnere-*ren* eskutik, Zuhaitz Zaharren Lagunak Elkarteakoa.

10:00: “Gaztainadia: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak”, Josefa Fernándezen eskutik; Mendietako ingeniaria eta Galiziako Xuntako

Baso Ikerketa Zentroko Selbikultura eta Hobekuntza Genetikoa Departamentuko burua.

11:15: “Bértiz, reino de los pájaros carpinteros/ Bertiz, okilen erresuma” (euskaraz), Miguel Mari Elosegiren eskutik; Nafarroako Natura Inguruneke Zerbitzura atxikitako biologoa.

Hitzaldiak amaitzean, 12:30 aldera, Hide-a inauguratuko da Markategiko parajeen. Egurrekin eraiki da ormigoizko orubearen gainean, 4,5 m x 3,0 m-ko azalera du eta 2,15 m-ko altuera. Zelatan egoteko beirak dituzten leihoak ditu eta beirarik gabeko hiru irekiera argazkiak atera ahal izateko. Hide-a diseinatzerakoan ingurumen-hezitzaileek eta argazkilari profesionalek hartu dute parte, talde batzuen eta besteen premietara ahalik eta ondoen egokitzeko. Hide-aren kostua gutxi gorabehera 10.000,00 €-koa izan da.